



# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARRA

6.Alea 1997ko Otsaila



**EUSKAL HERRIKO LEHEN**

**HAURT XOTEKA**

**ESKORIATZAKO IKASTOLAN**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea:**

**AXTROKI KULTUR ELKARTEA**

**Erredakzio kontzeilua:** Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa.

**Kolaboratzaileak:** Karmelo Oñate, Ander Zabala, Iñaki Agiriano

**Imprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 1700 ale

“ZE BARRI? ez aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

**NAIARA ERRASTI OTAÑO**  
**Margolaritza alorrean irabazlea**

**1-Noiztik ari zara margotzen?**

Orain dela 4 urte hasi nintzen.

**2-Ze tipokoak dira zure kuadroak?**

Figuratiboak , errealistak.

**3-Zenbat kuadro egin duzu , gutxi gora behera?**

Hogei bat.

**4-Zein da zure margolari gogokoena?**

Hopper (inglesa).

**5-Zenbat lehiaketatan hartu duzu parte?**

4tan eta 2 irabazi ditut , Eskoriatzan eta Donostian.

**6-Non margotzen duzu?**

Fakultatean eta etxean.

**7-Badaukazu arazorik margotzeko edo tresnak mugitzeko?**

Bai , leku aldetik.

**8-Badaukazu harremanik beste margolariren batekin?**

Fakultateko jendearekin eta maisuekin.

**9-Garestiak dira margolariaren tresnak?**

Bai , oso garestiak.

**10-Margotzeaz gain , zertan erabiltzen duzu zure denbora?**


Lagunekin irtetzen naiz , mendira joaten naiz eta kirola egiten dut.

**11-Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?**

Margolarientzako lokalak jarriko nituzke eta ikastaro desberdinak antolatuko nituzke.

**12-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?**

Orrialde gutxi baina bestela ondo.



**Garaje AITZORROTZ**

Gasteiz bidea, z/b. ESKORIATZA

Tfnoa: Tailerra (943) 714294 - Mugikorra 908 579051

### INSUMISO EGUNA

Aurten, bigarren aldiz, insumiso eguna ospatu da Eskoriatzan. Kutsu erreibindikatioa bide dela, giro jator bat lortzeko helburua du talde antimilitaristak.

Eguerdi aldera babajan popularra egin zen. Babak oso onak zeuden eta batek baino gehiagok bi eta hiru platerkada jan zituen. Bazkalostean, trikitalari eta bertsolariek girotu zuten jantokia, jendea kantaraziz (dantzatzeko lekurik ez zegoen). Ondoren, ilunkadan musika talde desberdinek (Altar, Arsenal eta Salvate si Puedes) jo zuten herriko zenbait tabernetan. Bukatzeko, manifa bat egin zen gauerdian.



### KINTOAK

Urtero bezala, kintoak zenbait egunetan zehar gure herria girotu dute. Etxaflero soinua behintzat ez da faltatu. Dantza ere egin zuten Santa Ageda egunean eta hurrengo igandean. Nahiz eta abeslari onak izan, saltsa pixka bat falta izan zaiela komentatzen da herrian.



Otsailak 11, asteartea, izan zen ihauteri eguna Eskoriatzan. Goiz goizetik ikastolako eta eskolako une guztiak beren mozorroekin ikusi ahal izan genituen. Arratsaldean plazan giro oso ona sortu zen gure herriko gazteenentzat.



Gauean Egan taldearen emanaldia izan zen herriko enparantzan. Ez dakigu eguraldiaren edo hurrengo egunean lanera joan beharraren errua izan zen, baina oso giro gutxi egon zen bai dantzaldian, baita tabernetan ere. Gainera, azken urteetan nabaritzen ari den zerbait da; nolabait ihauteriak errekueratu beharra dago (behar bada beste egun batetara igaroaz ospakizunak ...).



**A & B**  
aholkulariak

**LEGEZKOA  
FISKALA  
KONTULARIA  
LABORALA  
LAGUN-ARO ASEGURUAK**

Gastañadui, 7  
Tel.-Fax. 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**  
(Gipuzkoa)

**ALDETEC**



-----**TASAZIOAK**  
-----**PERITAZIOAK**  
-----**PROIEKTU ING.**  
-----**OBRA ZUZENDARITZAK**  
-----**ERREFORMAK**

Gastañadui, 7 - bajo  
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 **20540** **ESKORIATZA**

# JOSE ARANA- ALMEN IKASTOLAN EUSKADIKO LEHENENGO HAURTXOTEKA MARTXAN

Otsailaren 28an, Eskoriatzako Jose Arana Ikastolan Haurtxoteka edo Haur Mediateka ( 0-6 urte ) inauguratu zen eta bertara guraso ugari gerturatu zen. Ekitaldiari Haurtxotekari buruzko informazioarekin eman zizaion hasiera, ondoren Seve Calleja idazlearekin " Liburua eta haurra. Guraso eta irakasleen bitartekotasuna irakurketaren zaletasunean " gaiari buruzko solasaldia izan zutelarik. Bukaera goxoa izan zedin, Antton Irustaren eskutik bi ipuin entzuteko aukera izan zuten parte hartzaileek.

## HAURTXOTEKAREN SORRERA:

Orain dela 5 urte, Burdeoseko " Centro de recursos didácticos profesionales " delakoaren aholkularitzarekin Almen Ikastolan Mediateka sortu zen. Proiektu hau, haur txikiagoentzat baliagarria eta bideragarria izan zitekeela ikusiz, Jose Arana Ikastolako arduradun eta irakasleak buru belarri sartu ziren gai hau lantzen. Esan behar da ausardi eta ilusio handia azaldu dutela, Euskadiko lehen Haurtxoteka edo Haur Mediateka sortu baitute. Eskoriatzako Haurtxotekak haur txikien liburutegia eta nagusien Mediateka uztartzen ditu. Ikastolako Haurtxoteka ireki eta egun batzuetara, Madriden Espainiako lehen Haur Mediateka zabaldu zutela jakin genuen.

## ZER DA HAURTXOTEKA? BERE HELBURUAK:

- Haurrak liburu eta informazio iturri ezberdinak ( Telebista, bideoa, CD ROM, internet, magnetofonoa, ordenagailua...) aurkituko dituen espazioa.
- Haurrak, bakarrik edo laguntzarekin, ikerketa, azterketa eta behaketaren bidez informazioa aurkitzeko gunea.
- Haurrari irakurketa- idazketa ikasteko prozesuan lagunduko dion gunea.
- Txiki txikitatik irakur-zaletasuna lortzen lagunduko diona.
- Jolas giroan, liburu eta informazio iturrien artean, askatasun osoz mugitzeko eta gozatzeko lekua.
- Telebista , bideoa, ordenagailua, CD ROM, magnetofonoa... haurrak, bakar bakarrik erabiltzen ikasiko duen tokia.
- Haurrari mailegu zerbitzua eskeiniko diona.

## NORI ZUZENDUA:

Haurtxoteka bereziki 0-6 urte bitarteko haurrentzat sortua izan da, beraien eguneroko ikastorduetako jardueran ardatz izango



## IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

## TXALAPARTA

JATETXEA

Tfnoa.: 715046

Pub CIPRI'S

Behin etorri  
Eta baietz berriz...

delarik. Hala ere, gurasok beraien tokia izango dute Haurtxotekan, izan ere beraien formakuntzan lagunduko baitute. Gurasoei zuzendutako hitzaldiak ere antolatuko dira eta noizbehinka ipuin animazio eta ipuin kontaketak izango dituzte. Aurrerago gurasok beraien haurrekin astean arratsalde batez Haurtxotekan egoteko posibilitatea izango dute bertako materiala askatasun osoz erabiliz.




**HAURRAK ZER AURKITUKO DU ?**

Alde batetik material ugari:

**- Liburuak:**

- 0-6 adinari egokituak.
- Material ezberdinetakoak: telazkoak, plastikozkoak, kartoizkoak, paperezkoak...
- Tamaina ezberdinetakoak.
- Mugikorrak.
- Zarata eta soinudunak.
- Idatzitakoak, idazgabeak eta hizkuntz desberdinetan.
- Ipuinak, bertsoak, poesiaak, enziklopediak, jolas liburuak...

**- Ikus-entzunezko materiala:** Telebista, Bideoak ( ipuinak, marrazkiak, musika, dokumentalak...), Musika zintak ( ipuinak, abestiak, taldeak...)



**- Informatika materiala:**

- **Ordenagailuz:**
  - Jolasak, kontzeptuak lantzeko jokuak.
  - CD ROM : ipuin interaktiboak, enziklopediak...
- **Interna:**
  - Informazio ugari: herrietakoa, zooetakoa...
  - Korreoa: mezularitza...

Beste aldetik Haurtxotekari bizia emango dioten pertsonaiak aurkitzen dira: **EKI** eta **IÑAKI A.** Bi pertsonai hauen eskuan dago funtzionamendu orokorra eta animazioa.

**EKI** maskotak, Iñaki bitartekotzat harturik, haurrari irudimenezko mundutik mundu errealerara sartzen lagunduko dio. **EKI**k Haurtxotekako arauak eta ordenak ezarriko ditu eta honez gainera material berriak aurkeztu eta bilatuko ditu.

**IÑAKI A.**, **EKI**ren ahotsa izanik, Haurtxotekaren arduraduna, ipuin kontalaria eta mailegu zerbitzua eramango duen pertsona da.

**BENTA-MOTZ**

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

**MIRENTXU**

Taberna

Tfnoa: 714167

*Kafe goxoa hartzeko*

**TOKI ALAI**

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

**TOKI EDER**

Taberna

Tfnoa.: 715438

*BOKADILO, AFARI eta  
MERIENDAK*

## SAHARARAKO EUSKAL KARABANA 97

Eskoriatzan ere, Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala Sahar Herriarentzako laguntza eratu da. Aurtengo Euskal karabanak eraman beharrekoa hauxe zen:

- Elikagaiak: helburua 50 atun tona eramatea da.
  - Ibilgailuak: kamioiak, 4x4 autoak, eta hauentzako errepuestoak.
- Eskoriatzan Atun Bilketa Kanpainak urtarrilaren 24tik otsailaren 20arte iraun du, eta gizate laguntzaileak adierazi digunez, emaitza hauxe izan da:

**Bildutako atun kopurua:** 28 bat kilo (92 lata)

**Jasotako dirulaguntzak:** 100.120 pzt.

### Kanpainaren Antolaketa:

**GIZARTE LAGUNTZAILEAK:** koordinazioa, Kanpainaren dibulgazioa, txarla eman zutenarekin arremanetan jarri.

**AMETZ BIZIA:** dendetako atun bilketaz arduratu dira: kaxak jarri, latak jaso eta abar.

**AMUSKA:** txarla egunerako kartelak jarri, eta elkartekoei ahoz aho txarlaren berri eman.

Balorazioa orokorrean oso positiboa ezan ei da. Bai txarla egunean eta bai lata bilketan ere partaidetza ona izan dela esan digute. Herriko dendek izan duten jarrera ona ere aipatu dute antolatzaileek.

**Eskerrik beroena,** beraz, alde batera edo bestera **kolaboratu duten guztiei!!**

## EUSKAL HERRIA KORRIKA

### **Badator KORRIKA!!**

Bi urtean behin Euskal Herrian zehar ospatzen den euskararen aldeko KORRIKA, aurten **MARTXOAK 17an pasatuko da Eskoriatzatik 5'30rak aldera. 10. KORRIKA** honek Arantzazutik irten eta Bilborainoko bidea egingo du martxoaren 14tik 23ra bitartean.

Aipatzekoa da hasiera batean ibilbidea ez zela Eskoriatzatik pasatzen, baina azkenengo orduan aldatu eta behetik gora etorriko zaigu KORRIKA.



## TURISMO ARTXIBOA

Eskoriatzako Kultura Saitetik jakinarazi digute, pasabarri den FITURetik (Turismoko Feria Internazionale) hainbat herrialderi buruzko informazioa ekarri dutela. Informazio hau Kultur Etxean egongo da inork kontsultatu gure izango balu. Orain ekindako artxibo hau osatuaz joango dela ere esan digute, eta leku jakin bati buruzko informaziorik ez balego eskatu egingo luketela.

## MAULEKO IKASTOLARI LAGUNTZA

Mauleko **HABIA ALKARTETik laguntza dialdia** heldu zaigu. Badira 25 urte bertako ikastola, seguritate eta garbitasun baldintzak betetzen ez dituzten aterpe prefabrikatueta eskola ematen ari dena. Botere politikoen geldotasuna kontutan hartuz, aurten beraien aldetik hasi dira **ikastola berria eraikitzeko** lanetan. Hau bideratzeko, 1997ko martxo bukaerarako 4500 pztako 3000 bono lortu nahi dute. Azkenengo orrian agertzen den bono hau bete eta korreoz, txekez(HABIAREN izenean) edo giro postalez bidal daiteke HABIAREN helbidera:

### **HABIA ALKARTEA**


EPERRA IKASTOLA

12, EVADES DE FRANCE karrika

64130 MAULE

Bertara ikastolako lanetan laguntzeko Sohütara joan nahi lukeenak eredeitu besterik ez du; **“ase eta lo trukean-oixe opor baliosak Zuberoan!!”**

TEL 05.59.28.33.78 FAX 05.59.28.33.78



## PISTINA BERRIA

Kiroldegian egiten ari diren pistina berriko lanak ere aurrera doaz. Horren lekuko aldamenko argazki hau.

## URRESTILLA

TABERNA

Tfnoa.: 714809

**Giro ona bolaren inguruan**

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa**

*fundazioa*  
*fundación*

**SKI IRTEERA**

- Martxoak 1 eta 2
- Martxoak 14 eta 15

**IKASTAROAK**

Eskulan ikastaroa

HASIERA: Martxoak 5

IRAUPENA: 30 ordu talde bakoitzak

EGUNAK: Asteazkena 6-8

Ostirala 3'30 - 5'30

PREZIOA: 3.000 pztza.

Plaza kopuru mugatua

**Izen-ematea, otsailaren 18tik martxoaren 4ra Kultur Etxean, edo 71.46.88 telefonora deituz.**

**BEKAK**

- 97-98 ikasturtean edo **98ko udan atzerrian ikasteko** hainbat beka deialdia eginda. Epe ezberdinak: Alemania, martxoak 14; Belgika, martxoak 20.
- Britania Handian, Irlandan eta Frantzia udan **hizkuntz ikastaroak burutzeko bekak**. Estatuko nahiz Eusko Jaurlaritzako beka orokorra jasota, 96-97 ikasturtea UBI, Batxilergoa, L.H.II edo OHO-DBA ikasten dutenentzat. Epea: martxoak 17.
- Euskal Autonomi Elkarte **Ikerkuntza Zentruetan praktikak egiteko bekak**, gehienez, 6 hilabete. Lizentziatu zein LHko moduluak ikasi dituztenei zuzenduta. 2 epe: otsailak 3 eta maiatzak 30.

**LANAK**

- Eskoriatzako Udalak obra eta zerbitzuetarako **peoien lan-poltsa** sortu nahi du. Oinarriak udal bulegoetan daude. Eskariak aurkezteko azken eguna: martxoak 14.
- Burlatako Udalak, **administrari laguntzaile** bat eta 5 udaltzain lanpostu bete nahi ditu. Epea: martxoak 8.

- Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, **10 zeladore** behar ditu. Epea: martxoak 13.
- Lezoko Udalak, **administrari laguntzaile bat** behar du. Eskariak aurkezteko epea, EBOean noiz agertuko zain gelditzen da.

**LEHIAKETAK**

- Kultura batzordeak **"San Pedroak 97"** jaietako egitarauen **azala aukeratzeko lehiaketa** antolatu du. 25.000 pztako sari bakarra emango du irabazlearentzat eta lanak aurkezteko epea maiatzaren 29ko arratsaldeko 7etan bukatuko da. Lehiaketako oinarriak Eskoriatzako Kultur Etxean eska daitezke.
- **Ikasketa-bidaien proiektu lehiaketa** antolatu du Kutzak, BBB, IEE, UBI, LH eta LOGSE Batxilergoko ikasleei zuzendua. 250.000 eta 65.000 pta bitarteko sariak. Epea: martxoak 10.
- **Donostiako Jazzaldia iragartzeko kartel lehiaketa**. Epea: martxoak 14.
- Salamankako **"Atenea" Emakume Elkarrekin antolatuta**, emakumeei zuzendutako **ipuin lehiaketa**, gai librean. Epea: martxoak 15.
- Pasaia Udalak, X. **Komiki Lehiaketa** antolatu du, 15 eta 25 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Lanak aurkezteko epea: martxoak 20.
- **Artisau Lanen X. Lehiaketa** antolatu du "Caja de Jaén"ek, zeramika, larru, tapiz eta egur taila lanak sarituriko direlarik. Lanak aurkezteko epea: apirilak 30.

INFORMAZIO GEHIAGO ARRASATEKO  
GAZTE BULEGOAN (770065) EDO  
ESKORIATZAKO KULTUR ETXEAN ETA  
UDALETXEAN  
ZINE GOMENDIOA

**ZINE GOMENDIO****"TESIS"**

Filmea komunikabideetako eta batez ere telebistako biolentziari buruz ari da. Honakoan gazte bat gai honi buruz tesi bat egiten ari da.

Pelikulan zehar irudi eta soinu aldetik gogorak gerta daitezkeen pare bat pasarte daude, baina gidoiak nondik nora jarraituko duen jakitea gustoko duzun horietakoa bazara, ez duzu erraz izango.

**"UN DIA INOLVIDABLE"**

Bikote separatu baten egun berezi bat kontatzen da pelikulan. Egund honetan semeen ardura beraien gain izateaz gainera bakoitzaren lanpostuan ere egun haundi bat edukiko dute.

Erromantikoa bazara eta hiri haundietako bizimodu azkarra gogoko baduzu, hauxe da zure aukera.

**LIBURU GOMENDIOA****GOSARIA TIFFANI'S-EN**

Truman Capote

Gaur egungo literaturaren erreferentziatako bat den Capoteren obra garrantzitsuenetako bat euskaraz dastatzeko aukera. Prosa erraz baten bidez, historio polit bat josten du. Edonork irakurtzeko moduko liburua bada ere, batez ere jende gazteari zuzendua dagoela esan daiteke. Hizkuntza bera ere ez da zailegia; beraz, liburutegira joan eta irakur ezazu.

**ERREDAKZIOAREN OHARRA:**

Azkenengo alean Santa Ageda mutileri buruz atera zen berria ez ei zen guztiz zehatza izan. Kultura Saisetetik jakinarazi digutenez ez zen arazorik izan ez etxafleroen gainean ezta irteteko egunari dagokionez ere.

**Pub ALDATZ**

Tfnoa.: 714171

Musika ona entzun dezazun



Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**



30 urte dira argazki hau atera zela. Bertan Arrietar anaiak ditugu protagonista. M<sup>o</sup> Carmen ondiokan jaio barik zegoela, ezkerretik eskumara ageri zaizkigun dantzari-txistulariak Dabid, Goio, Txomin, Jota-Jota eta Bittor ditugu. Argazkia 1967ko San Pedro jaietan ateratakoa da Aranburuzabala kalean, LEIBAR arrandegiaren parean.

## LAGUNTZA BONOĀ

**HOGETA BOST URTEZ ATERBE ESKAZ ETA ZAHARKITUETAN EGON ONDOAN, MAULEKO IKASTOLAKO 65 HAURREK EGOITZA EGOKI ETA ERABILGARRIAK BILATZEN DITZUTE: LAGUN ITZAZUE.**

SOHUTAN IKASTOLA BERRIA ERAIKITZEN LAGUNDU NAHI DUT

- 200L/4.500 pta emanaz (txartela postaz ardietsiko dut)
- Txekez (HABIaren izenean)
- Giro edo Mandat postalez HABIaren zuzenbidera

Izen deiturak .....

Helbidea .....

Herria .....

Posta kodea .....

Probintzia .....

Cuenta Joven  
de Caja Laboral  
El servicio  
más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
Kontu Gaztea.  
Zerbitzuetan  
osatuen.**

  
CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA



# AKEITA

TABERNA

5etatik zabalik

Tfnoa.: 715094

KAFE, PINTXO eta BOKADILOAK